| 2018KO URRIAREN 30EAN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA | ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 30 DE OCTUBRE DE 2018 |
|---|---|

| LEHENDAKARI ERAGINKORRA | PRESIDENTE EFECTIVO |
|---|---|

P.N.V. – E.A.J. GONZALEZ PEREZ, Alvaro Jn.

| BERTARATUTAKO BOKALAK | VOCALES ASISTENTES |
|---|---|

| | |
|---|---|
| GUK GETXO | AMIEVA CLEMENTE, Paula |
| GUK GETXO | ANDOLLO GONZALEZ, Susana and. |
| P.N.V. – E.A.J. | ARREGI MARTINEZ, Joseba jn. |
| P.N.V. – E.A.J. | CORIA YANGUAS, Elena and. |
| P.P. | COS YAÑEZ, Susana and. |
| P.N.V. – E.A.J. | EIGUREN ALBERDI, Keltse and. |
| P.P. | IBABE BOTELLA, Miguel jn. |
| P.N.V. – E.A.J. | ITURBE MENDILIBAR, Koldo jn. |
| P.S.E./EE | LANDA ARTECHE, José Luis jn. |
| EH BILDU | RODRIGUEZ LARRINAGA, Ibon jn. |
| P.N.V. – E.A.J. | URIARTE GOROSTIAGA, Ignacio jn. |

| BEHIN-BEHINEKO GERENTEA | GERENTE ACCIDENTAL |
|---|---|

MIÑAMBRES AMEZAGA, Aitor jn.

| GONBIDATUTAKO LANGILE TEKNIKOAK | INVITADOS PERSONAL TÉCNICO |
|---|---|

ZABALA LASA, Gorka jn.

| AZTERGAIEN ZERRENDA | ORDEN DEL DIA |
|---|---|
| Getxo Kirolakeko kirol kurtsoetako garapena eta exekuzioaren prozedura irekiaren acordio proposamena, kalitatezko kirol partizipatiboa sustatzea da helburua, 1. Lotean (RAKETAK). | Propuesta de aprobación del Acuerdo para la adjudicación, del Procedimiento Abierto, para el desarrollo y ejecución de los Cursos Deportivos de Getxo Kirolak, con el objetivo de fomentar el deporte participativo de Calidad, con respecto al Lote 1 (RAQUETAS). |
| SERVICIOS DE HOSTELERIA PEÑASCAL, S.L. enpresak SUSPERTU, SL, enpresaren alde aurkeztutako lagapena baimentzeko akordio proposamena, txertatze eta tokiko garapenerako proiektuaren kontratuan, lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenak Getxoko Kirolak-fadurako lokaletan, ostalaritzan, prestakuntzan eta haurren zonaldean sartzeko. | Propuesta de acuerdo para la autorización de la cesión presentada por SERVICIOS DE HOSTELERÍA PEÑASCAL, S.L. en el contrato de proyecto de inserción y desarrollo local para el empleo de personas con dificultades de acceso al mercado de trabajo en hostelería-formación y zona de niños/as en los locales de Getxo Kirolak- Fadura. |

Getxon, 2018ko urriaren 30ean, arratsaldeko 14:00ean, ez-ohiko bileran bildu da Zuzendaritza Batzordea, Santa Klarako Batzar Aretoan (Getxoko Udaletxea), goian aipatutako pertsonak batu direlarik.

En Getxo, a las 14:00 horas del día 30 de octubre de 2018 se reúne en sesión extraordinaria, en la Sala de Comisiones de Santa Clara (Ayuntamiento de Getxo), el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

156.- GETXO KIROLAKEKO KIROL KURTSOETAKO GARAPENA ETA EXEKUZIOAREN PROZEDURA IREKIAREN AKORDIO PROPOSAMENA, KALITATEZKO KIROL PARTIZIPATIBOA SUSTATZEA DA HELBURUA, 1. LOTEAN (RAKETAK).

156.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL ACUERDO PARA LA ADJUDICACIÓN, DEL PROCEDIMIENTO ABIERTO, PARA EL DESARROLLO Y EJECUCIÓN DE LOS CURSOS DEPORTIVOS DE GETXO KIROLAK, CON EL OBJETIVO DE FOMENTAR EL DEPORTE PARTICIPATIVO DE CALIDAD, CON RESPECTO AL LOTE 1 (RAQUETAS)

Ibon Rodriguez: Guk, Zuzendaritza Batzordearen bilera hau hasi aurretik, zerbait argitu nahi dugu: gure kexa aurkeztu nahi dugu. Batetik, zein ordutan egiten den Batzordearen bilera, Zuzendaritza Batzordea, eta batez ere barne-kudeaketako gai bat denean. Nire ustez, bilera bat ordu horietan egitea ez da egokia, eta, horregatik, ezin dira ordezkari guztiak gaur hemen egon. Beraz, eskatu nahi genuke, beste batzuetan egin dugun moduan, deialdia ordu egokietan egitea, eta Zuzendaritza Batzordearen bilerak, Arruntak badira, arratsaldez egitea, eta Beste Zuzendaritza Batzorde bat bada, ezohikoa izan arren, baita ere ordutegi horretan egitea, oso oso premiazkoa ez bada, behintzat. Kasu honetan, gure ustez ez da hain premiazkoa, gaur aztertzen ari garen hau, datorren asteartean ere egin baitezakegu, eta egoera ez litzateke gehiegi aldatuko.

Ibon Rodríguez: Nosotros, antes de que comience este Consejo Rector, queríamos dejar en evidencia algo: queremos expresar nuestra queja. Por un lado, por las horas en las que se convoca la Comisión, el Consejo Rector, y sobre todo cuando respecta a un tema de gestión interna. Me parece que una convocatoria a esas horas no es adecuada, y así, no permite que todos los representantes estén aquí hoy. Por lo tanto, nos gustaría pedir, como hemos hecho en otras ocasiones, que la convocatoria se haga en unas horas adecuadas, y que los Consejos Rectores, si son Ordinarios, se hagan por la tarde, y si es otro Consejo Rector, aunque sea Extraordinario, se haga también en ese horario, a no ser que sea muy, muy urgente. En este caso, creemos que no es tan urgente, porque esto que estamos examinando hoy, lo podríamos hacer el martes que viene, y la situación no cambiaría demasiado.

Hortaz, horixe eskatzea nahi genuke; izan ere, Zuzendaritza Batzorde honetan, soilik ni nago, eta aurrekoan ere ni bakarrik egon nintzen, Batzorde hartan jorratu ziren antzeko gaiekin, eta hori kontuan hartu beharreko zerbait dela uste dugu.

Por lo tanto, nos gustaría pedir eso, precisamente, porque en este Consejo Rector solo estoy yo, y en el anterior Consejo Rector también estuve yo solo, con los temas similares que se trataron en aquel Consejo, y nos parece algo a tener en cuenta.

Lehendakaria: esan duzuna jasoko dut. Ez nago ados astearte honetan edo hurrengoan egitea gauza bera izango denarekin, zeren astearte honetan egiten badugu, zerbaitegatik izango da. Eta besterik gabe. Saiatuko naiz etorkizunean, beste ordu bat jartzen, baina orduak denontzat izan behar du egokia.

Presidente: Pues tomo nota de lo que dices. Discrepo de ti en que sea lo mismo hacerlo este martes que el que viene porque si lo hemos hecho este martes es por algo. Y sin más. Procuraré que en ocasiones futuras… intentaré poner otra hora… pero la hora tiene que ser adecuada para todos también.

Ibon Rodriguez: arratsaldean egin daiteke.

Ibon Rodríguez: Se puede hacer por la tarde…

Lehendakaria: edo ez. Behar bada ez da denontzat 'arratsaldean' egitea. Besterik ez.

Presidente: O no. Igual no es adecuada para todos 'arratsaldean'. Nada más.

Paula Amieva: Bai. Gure taldean ere gauza bera gertatu da. GUK barruan badakigu pertsona batzuek ezin dutela ordu guztietan libre egon udal-jarduerak egiteko, nahiko luketen moduan, eta, beraz, gaurko deialdian, ezin izan dute titular bezala etortzea, eta etortzea egokitzen zitzaien. Orduan, niri ere gustatuko litzaidake deialdiak arratsaldez egitea, egin ohi diren moduan, eta kontuan hartzea hemen egon ahal izateko baliabide berak ez dituzten pertsonak.

Paula Amieva: Sí… Que me gustaría también que en nuestro grupo ha ocurrido exactamente lo mismo Dentro de GUK ya se sabe que hay varias personas que no tienen la posibilidad de estar a todas las horas que les gustaría en la actividad municipal y que, por tanto, con la convocatoria de hoy no, les ha sido imposible poder venir como titulares, y que les correspondía poner venir. Entonces, sí que me gustaría que se respetara que se hicieran a las tardes las convocatorias, tal y como viene siendo habitual y que se tengan en cuenta a las personas que no tienen los mismos medios para poder estar aquí.

Lehendakaria: Ados. Berriro diot: jasota geratu da. Eta Ezohiko Zuzendaritza Batzordeak komenigarriak eta beharrezkoak direnean nik deituko ditut. Inola ere ez apetarengatik.

Presidente: De acuerdo. Pues insisto: tomo nota. Y los Consejos Rectores Extraordinarios los convoco cuando creo que son convenientes y necesarios. En ningún caso a capricho.

Eta *Gai Zerrendaren* inguruan zerbait badago…

Y si hay alguna cuestión relativa al *Punto* del *Orden del Día*…

Paula Amieva: ikusi dugu esleituko zaion enpresak edo esleitzea proposatzen denak, abala eskaintzen duela, eta, gero, onartutako dokumentazioaren zati bezala agertzen dela. Orduan, jakin nahiko nuke abal hori egon izan ez balitz, enpresa horren baja ausartegia deklaratuko zen prozesuaren barruan.

Paula Amieva: Hemos visto que la empresa a la que se adjudica, o a la que se propone adjudicar, ofrece un aval, y que, luego, está como parte de la documentación que se acepta. Entonces, me gustaría saber: de no haber habido ese aval, si se hubiese declarado la baja temeraria de esta empresa dentro del proceso.

Lehendakaria: abala derrigorrezkoa da edozein kasutan. Abala beti derrigorrezkoa da kontratu baterako. Bestela, ezin da esleipena egin.

Presidente: El aval es obligatorio en cualquier caso. El aval siempre es obligatorio poner un aval para el contrato. Si no, no se puede adjudicar.

Paula Amieva: ez da pleguetan agertzen, eta juridikoki ez…

Paula Amieva: No aparece en los pliegos, y jurídicamente no…

Lehendakaria: ez dauka pleguetan agertu beharrik. Legean agertzen da. Derrigorrezkoa da behin betiko bermea.

Presidente: No tiene que aparecer en los pliegos. Aparece en la Ley. Es obligatoria la garantía definitiva.

Paula Amieva: eta orduan, zergatik ez dago eskatzen zaion dokumentazio guztiaren barruan, baina bai enpresa berak berme gisa eskaintzen duen bezala, bete beharreko baldintza ez bada?

Paula Amieva: Y entonces, ¿por qué no está dentro de toda la documentación que se le requiere, pero sí como que lo ofrece la propia empresa como una garantía, cuando no era un requisito a cubrir?

Lehendakaria: enpresak nahi duena eskain dezakeelako, eta Mahaiak, dagozkion zerbitzu juridikoekin, onartu edo ez onartu dezake. Edo bidezkotzat edo ez bidezkotzat jo.

Presidente: Porque la empresa pude ofrecer lo que le parezca, y la Mesa, con los servicios jurídicos correspondientes, aceptarlo o no aceptarlo. O parecerle procedente o no procedente.

Paula Amieva: baina Legez baldintza bada, orduan,…

Paula Amieva: Pero si es un requisito por ley, entonces no cabe…

Lehendakaria: Legeak eskatzen duen baldintza Legeak ezartzen duen behin-behineko bermea da; hots, uste dut kontratuan kalkulatutako balioaren %4a dela. Enpresak, baja desproportzionatuan zegoenez, beste berme bat eskaini du, eskatutakoaren berme gehigarria.

Presidente: El requisito por ley es la garantía provisional que establece la ley, que creo que es el 4 % del valor estimado del contrato. La empresa, como iba en baja desproporcionada, ofrece una garantía adicional, ofrece una garantía adicional a la requerida.

Paula Amieva: baina egin behar duena da pleguak betetzea, eta ez ezarritako baldintzetatik gorago dauden gauzak eskaintzea, ezta?

Paula Amieva: Pero lo que tiene que hacer es cumplir con los pliegos, no ofrecer cosas que están por encima de los requisitos que están establecidos, ¿no?

Lehendakaria: haiek zerua eskaini dezakete, eta guk esan "ez da egokitzen: ez zaio Legeari egokitzen". Baina haiek nahi dutena eskain dezakete.

Presidente: Ellos pueden ofrecer el cielo, y nosotros decirles "no toca; no corresponde a ley". Pero ellos pueden ofrecer lo que quieran…

Paula Amieva: Eta kasu honetan, onartzea egokitzen da?

Paula Amieva: Y en este caso, ¿sí corresponde admitirlo?

Lehendakaria: Mahaiak erabaki badu onartzea egokitzen dela, onartu egingo zuen. Ezin dizut ezer gehiago esan. Zerbitzu juridikoak erabaki dute… 'Aizu, onartuko diegu? Bai'. Eta kito.

Presidente: Si la Mesa ha considerado que corresponde admitirlo, lo habrá admitido. No te puedo decir nada más. Los servicios jurídicos han considerado… 'Oye… ¿Se lo admitimos? Sí'. Punto.

Eta berriro gauza bera diot: fiskalizazioaren espediente guztiak hor dago, eta ados dago prozedurarekin.

Y vuelvo a insistir en lo mismo: existe todo el expediente de fiscalización, que está conforme con el procedimiento.

Paula Amieva: bai, ados. Baina honako honek harritzen gaitu: *"era berean, kontratazio-organoaren lasaitasunerako"*, abal hau eskaini da. Esan nahi dut… *"kontratazio-organoaren lasaitasunerako"* esatea ez dugu normala ikusten. Legezko baldintza izango balitz, hau esatea bezain erraza da: "Legeari jarraiki, Mahaiak onartu

Paula Amieva: Sí… Vale… Es que lo que nos choca es que pone que *"así mismo, para la tranquilidad del órgano de contratación"*, se ofrece este aval. Quiero decir… lo que no nos cuadra es que se diga *"para la tranquilidad el órgano de contratación"*. Si fuera un requisito legal, es tan fácil como decir "En

du enpresak abal hau onartzen duela Legez"... baina *"kontratazio-organoaren lasaitasunerako"*... Erabaki-proposamenaren barruan horrela jartzen du, ezta?

Lehendakaria: Legeak lizitatzailearentzat erabakitako bermea eskatzen du Mahaiak. Eta lizitatzaileak berme gehigarria eskaini du, kontratazio-organoaren lasaitasunerako, baja desproportzionatu bat egoteagatik, eta haren borondate onarekin guk zalantzarik ez edukitzeagatik. Horregatik eskaini du berme hori. Eta Mahaiak onartzea erabaki du. Eta onartu duenez, Erabaki-proposamenera eraman du. Ez dago besterik.

Paula Amieva: abal hori dagoenez, ulertzen dut orduan onartu dela, baja ausartegian ez sartzeagatik. Baina abal hori egon ez bazen...

Lehendakaria: ez, ez, ez! Baja ausartegiak ez du inolako zerikusirik abalaren proposamenarekin. Baja ausartegiak baja ausartegia dakar, azterketa ekonomikoa bidaltzen du, Mahaiak azterketa ekonomikoa aztertzen du, eta duen baja ausartegia deskalifikatzeko modukoa ez dela erabakitzen du, gaizki ulertu ez badut.

Paula Amieva: orduan, nahikoa ez bada, ez dago abal beharrik, Alvaro.

Lehendakaria: barkatu, baina nik ez ditut abalak erabakitzen. Zerbitzu Juridikoei eta Mahaiari interesgarria iruditu zaio abala jartzea.

Paula Amieva: baina Mahaian ordezkaritza politikoa ere badago. Horregatik, jakin nahi nuen...

Lehendakaria: bai, bai, Mahaian ordezkaritza politikoa dago, baina bi boto ditu, e?

Paula Amieva: bai, baina nire galdera hau da: zer-nolako irizpidea jarraitu du? Zeren egindako esleipenaren barruan, erabaki-proposamenak...

Lehendakaria: irizpidea? Kontu Hartzailetzako idazkariak eta Mahaian dauden gainerako teknikariek ezarri dutena.

Paula Amieva: ados. Baina nik erabaki-proposamena aipatu nahi dut, eman diren urratsak banakatuta agertzen dira, eta enpresa honek hori ez du egin kasu eta urrats bakoitzean, eta zergatik eskatu zaio, eta zer aurkezten joan da: egokia zen ala ez.

Dokumentazio horren guztiaren barnean, —badirudi urratsez urrats egokitzen joan dela—, une batean enpresak erabaki du, motu proprio, abala aurkeztea. Eta ez eskatu zaiolako, ez Legea betetzen ez duelako edota ez horrek hobekuntza dakarrelako. Gauza da inon jaso gabe dagoela. Orduan, horregatik adierazi nahi nuen nire harridura, bat-batean beste inon jaso gabe zegoen abal bat agertzeagatik, beste enpresek aurkeztu beharrik ez dutena, eta, gero, jartzen du esleipendunari eskatu zaiola, enpresak eskaini ondoren, betetako dokumentazioaren barruan, lehen gutun-azaleko dokumentazio orokorraz gain, behin-betiko bermearen gordailua, abal-gordailu hau egitea.

cumplimiento de la ley, la Mesa acepta que esta empresa acepta este aval por ley"... pero *"por tranquilidad del órgano de contratación"*... dentro de la propuesta de acuerdo lo pone así... no...

Presidente: La Mesa requiere la garantía que determina la ley al licitador. Y el licitador ofrece una garantía adicional, para tranquilidad del órgano de contratación porque existe una baja desproporcionada y para que no tengamos dudas de su buena voluntad, por así decirlo, ofrece esa garantía. Y la Mesa estima aceptarla. Y como la acepta, pues la traslada a la Propuesta de Acuerdo. No tiene más.

Paula Amieva: Como existe ese aval, entonces entiendo que es cuando se acepta, y no incurre en baja temeraria. Pero si no hubiera habido ese aval...

Presidente: ¡No, no, no! La baja temeraria no tiene nada que ver con la propuesta de aval. La baja temeraria incurre en baja temeraria, manda su estudio económico, la Mesa examina el estudio económico, y establece que la baja temeraria en la que incurre no es suficiente para descalificarla, si no entiendo mal.

Paula Amieva: Pero entonces, si no es suficiente, no hace falta aval, Álvaro.

Presidente: Perdona, pero yo no soy quien decide los avales. Son los servicios jurídicos y la Mesa a los que les parece interesante.

Paula Amieva: Pero en la Mesa también está la representación política. Por eso quería saber...

Presidente: Sí, sí, en la Mesa está la representación política... pero tiene dos votos, ¿eh?

Paula Amieva: Ya. Pero pregunto: ¿qué criterio se ha seguido? Porque dentro de la adscripción que se hace, la propuesta de acuerdo....

Presidente: ¿Criterio? El que ha establecido el Secretario de Intervención y el resto de técnicos en la Mesa.

Paula Amieva: Bien... Yo a lo que me refiero es a la propuesta de acuerdo, va desglosando los pasos que se han dado... qué es lo que le ha faltado a esta empresa en cada caso y en cada paso, y por qué se le ha requerido, y qué es lo que se ha ido presentando: si era adecuado o no era adecuado.

Dentro de toda esta documentación, que parece que se ha ido adaptando paso a paso, de repente llega un momento en el que decide la empresa, motu proprio, presentar el aval. No porque se le haya requerido, no porque esté incumpliendo la ley, o no porque eso vaya a suponer una mejora. Es que no está recogido en ningún lado. Entonces, por eso quería expresar mi... no sé... mi asombro... porque de repente aparece aquí un aval que no estaba recogido en ningún otro sitio, que ninguna otra empresa lo tiene que presentar, y que luego se pone que se ha requerido al adjudicatario después de que la empresa lo ha ofrecido que, dentro de la documentación cumplimentada, aparte de la

documentación general del sobre primero, del depósito de la garantía definitiva, está el depósito del aval.

Lehendakaria: Bai...

Presidente: Sí...

Paula Amieva: baina hori enpresak eskaini duelako da, eta gero enpresak eskatzen duela... Hori niri...

Paula Amieva: Pero eso es porque lo ha ofrecido la empresa, luego lo requiere entonces la empresa... Eso es lo que no...

Lehendakaria: eskaini badu, aurkezteko eskatuko genion. Eta kito. Zer da, hizkuntza-arazoa?

Presidente: Si la ha ofrecido, le requerimos para que lo presente. Ya está. ¿Qué es, un problema de idioma?

Paula Amieva: ez.

Paula Amieva: No.

Lehendakaria: orduan, ez dakit zein den arazoa. Arazoa da enpresak abala eskaini duela, berme gehigarria, eta Mahaiak onartu egin duela.

Presidente: Entonces, no entiendo cuál es el problema. El problema es que la empresa ofrece un aval, una garantía adicional, y la Mesa la acepta.

Paula Amieva: baina abalak zer esan nahi du udal-kudeaketaren barruan?

Paula Amieva: ¿Pero el aval qué significa dentro de una gestión municipal?

Lehendakaria: zein?

Presidente: ¿Cuál?

Paula Amieva: abalak zer esan nahi du udal-kudeaketaren barruan?

Paula Amieva: ¿El aval qué significa dentro de una gestión municipal?

Lehendakaria: 'abala' 'bermearen' gauza bera dela. 'Abala' eta 'bermea' gauza bera dira. Gauza bera. Berme bat da. Zerbitzua, edozein arazo medio, gaizki ematen bada, konfiskatu egiten da edota dirua jaso; ez naiz gogoratzen nola esaten den, bermea konfiskatzen da, eta kito.

Presidente: Que el 'aval' es lo mismo que la 'garantía'. Es lo mismo 'aval' que 'garantía'. Es lo mismo. Es una garantía. Si el servicio, por cualquier problema se presta mal, se incauta, o se recauda, no me acuerdo cómo se dice, se incauta la garantía, y se acabó.

Paula Amieva: orduan, erabiltzen ari garen hizkuntza desberdina da. Izan ere, batetik, bermearen gordailua jartzen du, eta, bestetik, abalaren gordailua. Gauza bera izango balitz, zenbateko osoa izango litzateke. Ez litzateke bitan zatituko.

Paula Amieva: Entonces, el idioma que estamos utilizando es diferente. Porque pone, por un lado, el depósito de la garantía, y por otro el depósito del aval. Si fuera lo mismo, sería el montante total. No estaría dividido en dos.

Lehendakaria: bai, bitan zatituta dago. Bat derrigorrezko bermea da eta bestea borondatezko abala.

Presidente: Sí, está dividido en dos. Hay una garantía obligatoria y hay un aval voluntario.

Paula Amieva: baina lehen esan didazu legeak eskatzen duelako dela.

Paula Amieva: Pero es que antes me has dicho que era por ley.

Lehendakaria: ez. Eta behin-behineko bermea. Behin betiko bermea Lege bidezkoa da, %4koa.

Presidente: No. Y la garantía provisional. La garantía definitiva es, por ley, el 4 %.

Paula Amieva: nik hasieratik abalarengatik galdetu dut, eta ez bermearengatik.

Paula Amieva: Yo estaba preguntando por el aval desde el principio. Pero no por la garantía.

Lehendakaria: abala haiek eskaini dute.

Presidente: El aval lo ofrecen ellos.

Paula Amieva: horixe esan dut hasieratik, eta esan didazu Legez aurkeztu beharra zutela, bajarik ez egotea bermatzearren.

Paula Amieva: Eso es lo que he dicho desde el principio, y me has dicho que tú que lo tenían que presentar por ley, para garantizar que no hubiera baja.

Lehendakaria: nik ez dut hori esan. Nik esan dut behin betiko berme bat dagoela, %4koa, derrigorrezkoa. Eta enpresak kontratazio-organoaren lasaitasunerako eskainitako abala edo berme gehigarria, baja desproportzionatua egoteagatik, lehen urtean, nire ustez, 400 eurokoa, eta bigarren urtean, hiru mila eta koska. Zenbateko horiek nahikoa ez direnez prozeduratik kanpo uztea justifikatzeko, dagoen jurisprudentzia aztertu eta kontuan hartuta, enpresaren fakturazio osoa eta irabazi guztiak aztertu baitira, eta, orduan, enpresak hori eskaini

Presidente: Yo no he dicho eso. Yo he dicho que hay una garantía definitiva, del 4 %, que es obligatoria. Y un aval, o garantía adicional, que ofrece la empresa, para tranquilidad del órgano de contratación, en tanto en cuanto existe una baja desproporcionada, estimada en el primer año —creo, ¿eh?— en 400 euros, y el segundo año en tres mil y pico. Como esos importes no son suficientes para justificar su exclusión del procedimiento, examinando y teniendo en cuenta la jurisprudencia existente, por cuanto se examina toda la

du lasaitasunerako, eta Mahaiak eta zerbitzu juridikoek erabaki dute onartzea legezkoa eta logikoa dela. Kito. Horixe egin da.

facturación de la empresa y sus beneficios, la empresa ofrece eso para tranquilidad, y la Mesa y los servicios jurídicos acuerdan que es legal y lógico admitirlo. Punto. Y eso es lo que hace.

Paula Amieva: ederki. Beraz, nik diot, enpresa horrek ez bazuen abal hori aurkeztu, ez naiz bermeaz ari, abalaz baizik…

Paula Amieva: Vale. Yo lo que digo es, si es esta empresa entonces no hubiese presentado ese aval… no hablo de la garantía, hablo del aval…

Lehendakaria: berdin-berdin esleituko zitzaion. Kito. Ezin dizut beste ezer gehiago esan. Berdin-berdin esleituko zitzaiola.

Presidente: Se le hubiera adjudicado igualmente. Ya está. Es que no te puedo decir otra cosa. Se le hubiera adjudicado igualmente.

Paula Amieva: hori da egin dudan lehen galdera, konpondu nahi nuena.

Paula Amieva: Esa es la primera pregunta que había hecho. Es la que quería solucionar.

Lehendakaria: legeak eskatzen dituen baldintzak beteaz, esleitu egin zaio. Gehiago eskaintzen badu, beharbada hartu egingo genuke… bada hartu egingo dugu…

Presidente: Cumpliendo con los requisitos legales exigibles, se le adjudica. Si ofrece más, pues igual lo tomamos… pues lo tomamos…

Paula Amieva: oso ondo. Eskerrik asko.

Paula Amieva: Vale. Gracias.

Ibon Rodriguez: galdera bat egitea baino gehiago eskakizun bat egitea nahi genuke. Proposamen hori Mahaira itzultzea nahi genuke, berriro ere analisi bat egiteko, eta analisiaren ondoren, gure iritziz, Zuzendaritza Batzorde honetara proposatu den enpresaren iraizpena ekarri behar litzateke. Zergatik? Enpresak baja desproportzionatua aurkeztu du, eta Mahaiak abuztuaren 31n enpresari eskatu dio baja hori justifikatzen duen txosten ekonomikoa egiteko. Txostena irailaren 4an aurkeztu du. Aurkeztutako txosten ekonomikoan, enpresak ez ditu kontuan hartu bere gain hartu beharreko kostu guztiak, baina alde batera utzitako kostu horiek guztiak, gure ustez, Kontratazio Legearen arabera, enpresa iraizteko behar adinako moduko arrazoiak dira. Alegia, ez ditu azpikontratazio-arauak betetzen, eta aurkeztu duen txosten ekonomikoak ere, hala eskatu zaiolako, ez ditu betetzen; Kontratazio Legean kanporatzeko agertzen diren baldintza batzuk betetzen ditu batez ere.

Ibon Rodríguez: Más que hacer una pregunta, a nosotros nos gustaría pedir algo. Nos gustaría que esa propuesta vuelva a la Mesa, para que se vuelva a hacer un análisis, y después de ese análisis, en nuestra opinión, lo que se tiene que traer a este Consejo Rector es el despido de la empresa que se propone. ¿Y por qué? Se presenta una baja desproporcionada por parte de la empresa, y la Mesa el 31 de agosto le pide a la empresa que redacte un informe económico que justifique esa baja, y se presenta el 4 de septiembre. Así, en ese informe económico que se presenta, la empresa no tiene en cuenta todos los costes que tiene que asumir pero todos esos costes que se dejan a un lado, en nuestra opinión, según la Ley de Contratación, son motivos suficientes como para despedir a la empresa. Es decir, no cumple las normas de subcontratación y el informe económico que presenta, porque se le ha solicitado, tampoco cumple, y sobre todo cumple algunas condiciones para la exclusión que aparecen en la Ley de Contratación.

Baina, horrez gain, eta ez dakigu zein den horren arrazoia, bi aldiz eskatu zaio txostena, eta txostena zuzentzeko ere eskatu zaio. Hain zuzen ere, azpikontratatutako langileen antzinatasuna ez da txosten ekonomikoan agertzen, eta enpresak beste txosten ekonomiko bat aurkeztu du, eta beste txosten ekonomiko horretan nahasita, oker, aurkeztu du. Aurkezpen txar edo oker hori formulak gaizki erabiltzeagatik gertatu da, eta beste txosten bat eskatu zaio. Baina, gainera, enpresak beste txosten gehigarri bat aurkeztuko du. Eta azken horretan, jada esandako moduan, enpresak abal bat jarri du, abala eskaini du. Beraz, zer egin du Kontratazio Mahaiak? Hori ere ez dugu ulertzen. Zer egiten du? Hain zuzen ere, enpresa hori onartu dio eskaintza bat epez kanpo aurkeztea, eta eskaintza abalarena da. Bai, horrela da. Enpresek beren eskaintzak, eta eskaintzen baldintzak horretarako ezarritako epearen barruan aurkeztu behar dituzte. Une horretan baja ausartegia edo desproportzionatua gertatu da, eta aurkeztu beharrekoa bideragarritasun ekonomikoaren gaineko txostena da eta ez besterik, hori bakarrik: bideragarritasun ekonomikoa. Eta kasu honetan zerbait ezberdina aurkeztu du: abala. Ez dakit zertarako balio duen, baina abala aurkeztu du, eta epez kanpo, eta Mahaiak onartu egin du.

Pero además de eso, y no sabemos cuál es el motivo de esto, pero se le ha pedido en dos ocasiones el informe, y se les pide que corrijan ese informe. Es decir, la antigüedad de los trabajadores subcontratados no aparecen en el informe económico, y la empresa presenta otro informe económico y en ese otro informe económico también se presenta de una manera equivocada, incorrecta. Y esa mala o incorrecta presentación se debe a algunas fórmulas equivocadas, y se pide otro informe. Pero, además de eso, la empresa presenta otro informe adicional. Y en ese último informe, como ya he dicho, la empresa proporciona un aval, ofrece un aval. Por lo tanto, ¿qué es lo que hace la Mesa de Contratación? Eso tampoco lo entendemos nosotros. ¿Qué es lo que hace? Lo que hace es aceptarle a esa empresa que presente fuera de plazo una oferta, y es la del aval esa oferta. Sí, es así. Las empresas tienen que presentar sus ofertas, y las condiciones de sus ofertas, dentro de un plazo establecido para eso. En ese momento ha habido una baja temeraria, o desproporcionada, y lo que tiene que presentar es un informe de viabilidad económica, y no otra cosa, sino eso: de viabilidad económica. Y en este

Beraz, guri gustatuko litzaiguke hori atzera botatzea, ez baitakigu enpresa horri zergatik eman zaizkion hainbeste aukera aurkeztutako txostenak zuzentzeko.

caso ha presentado algo diferente: un aval. Que no sé para lo que vale, pero lo que presenta es un aval, y fuera de plazo, que la Mesa acepta. Y, por lo tanto, a nosotros nos gustaría solicitar que se eche para detrás esto, porque no sabemos precisamente por qué se le ha dado a esta empresa tantas oportunidades para corregir los informes presentados.

Gainera, txosten horietan Legean jasotzen diren hainbat akats daudenez, enpresak kanporatua izan behar luke. Izan ere, badira arrazoi gutxiagorengatik kaleratuak edo kanporatuak izan diren enpresak.

Además, en esos informes había diversos fallos que recoge la ley. Es decir, habría que excluir a la empresa. Porque hay empresas que han sido despedidas, o se han dejado fuera por motivos más pequeños.

Hortaz, bozketa egiten bada, gure erantzuna erabat ezezkoa izango da, ez dugu ulertzen-eta horrela zergatik jokatu den, zergatik errespetatu diren akats bat, bi, hiru, txosten beraren lau bertsio aurkeztu dituen enpresarengan. Gainera, jakin badakigu enpresa guztiekin ez dela modu berean jokatzen.

Por lo tanto, si se somete a votación, nuestra respuesta será un no rotundo, porque no entendemos por qué se ha actuado así. Es decir, por qué se han respetado uno, dos, tres fallos en una empresa que ha presentado cuatro versiones de un mismo informe. Y además, también sabemos que con todas las empresas no se actúa de la misma manera.

Ondorioz, ez dugu ulertzen zergatik gertatu den hori, zergatik horrela izan den. Gainera, enpresa horrek, arlo guztietan, eremu automatiko horietan guztietan, hots, lan-taldearen osaerari dagokionean, orain ondo gogoratzen ez ditudan beste puntu batzuei dagokienean, lau puntu ziren, lan-taldeen osaera, e.a., puntuaziorik baxuena lortu du. Beraz, ez dakigu zergatik horrela jokatu den.

Por lo tanto, no entendemos por qué ha ocurrido esto, por qué ha sido así. Y además, esta empresa, en todos los demás ámbitos, en todos esos ámbitos automáticos, es decir, en lo que respecta a la formación del equipo de trabajo, en lo que respecta a otros puntos que ahora mismo no recuerdo bien, eran cuatro puntos, la formación de los equipos de trabajo, etcétera ha obtenido la puntuación más baja. Por lo tanto, no entendemos por qué se ha procedido así.

Guretzat, prozedura ez da egokiena izan. Gainera, ez da bidezkoa aurkeztu diren gainerako lehiakideekiko, eta, hortaz, Mahaira ekartzea nahi dugu, txostenaren beste analisi bat egiteko, eta batik bat txosten hori nola idatzi duten eta atzean zer-nolako prozedura egon den aztertzeko.

Para nosotros el procedimiento no ha sido el más adecuado. Además, no es justo para con todos los competidores que se han presentado, y por ello nuestra presentación es que vuelva a la Mesa para que vuelvan a hacer un análisis del informe, y sobre todo para que analicen cómo se ha redactado ese informe y el procedimiento que ha habido detrás.

Lehendakaria: beno, soilik bi gauza.

Presidente: Bueno, solo dos cuestiones.

Bat. Legeak baimena ematen du Mahaiak beharrezkotzat jotako azalpen guztiak eskatzeko enpresari. Hori lehenik eta behin.

Uno. La ley permite requerirle a la empresa tantas expliciones como considere la Mesa necesarias, en primer lugar.

Bigarrena. Ez da inolako eskaintzarik egin epez kanpo. Izan ere, enpresak aurkeztu duen eskaintza esleituko den eskaintza da, esleituko den orduko prezioari egindakoa.

Segundo. No se ha presentado ninguna oferta fuera de plazo. Porque la oferta que ha presentado la empresa es la oferta que se va a adjudicar, al precio/hora que se va a adjudicar.

Eta hirugarrena. Legezko baldintza guztiak bete dira Mahaiak eskaintza ekonomikoa aztertzeko. Orduan, kontratazio-organo horrek erabakitzen badu ez dela esleituko, Mahaira itzuliko da, Mahaiak beste proposamen bat egin dezan. Baina, jakina, bozketa egingo dugu.

Y tercero, se han cumplido todos los requisitos legales para que la Mesa examine la oferta económica. Entonces, si este órgano de contratación determina que no se adjudica, pues volverá a la Mesa, para que la Mesa haga otra propuesta que le corresponde. Pero, evidentemente, lo voy a someter a votación.

Ibon Rodriguez: gazteleraz esango dut, hemen badirudi-eta itzulpenen bitartez ez dela betetzen…

Ibon Rodríguez: Lo voy a decir en castellano, porque aquí parece que a través de las traducciones no se cumple …

Lehendakaria: itzultzaileak ez du errurik. Nire aditzailea izango da…

Presidente: La traductora no tiene la culpa. Será mi entendedera, entonces…

Ibon Rodriguez: beharbada nik ez dut ongi azalduko, esan

Ibon Rodríguez: O igual es que yo me expreso mal…

nahi dut… denetik izan liteke… Beraz, gazteleraz esango dut, eta horrela ez da arazorik egongo.

quiero decir… puede ser de todo… Entonces, lo digo en castellano, y así no hay ningún problema.

Enpresari lehenik eta behin ez zaio eskatu aurkeztutako txostenaren gaineko azalpenik, baizik eta esan zaio txostenean ez duela jaso jaso beharreko gauza bat. Hori ez da azalpen bat. Hori bideragarritasun proiektuaren zuzenketa da. Gure ustez, hori ez da azalpena. Ez du esan nahi 'zer jartzen du hemen, ez dut ulertzen eta?'. Horixe da enpresari egindako lehen eskaera.

Lo que se le requiere a la empresa en primera instancia no es una aclaración sobre el informe que pasa, sino que lo que se le dice es que en su informe no se contempla una de las cosas que se debe contemplar. Eso no es una aclaración. Eso es una subsanación de su proyecto de viabilidad. A nuestro entender. Eso no es una aclaración. No es '¿qué es lo que pone aquí, que no entiendo?'. Eso es el primer requerimiento que se le hace a la empresa.

Guk ez dugu esan enpresak eskaintza berria egin duenik, baizik eta eskaintzan elementu bat sartu duela, eskaintzak aurkezteko unean egin beharrekoa, ez ondoren. Zeren gainerako enpresei ez zaie elementu hori aurkezteko aukerarik eman.

Nosotros no decimos que la empresa ha hecho una nueva oferta, sino que en su oferta ha incluido un elemento cuya inclusión debería haberse producido en el momento que está la presentación de ofertas; no a posteriori. Porque no se les daba la oportunidad al resto de empresas de presentar ese elemento.

Eta are gehiago, beste enpresa bat beste lote batzuetara aurkeztu da, baina, kaudimen-kontuak medio, kanpoan utzi da. Beraz, kontuan hartzeko moduko bi elementu direla uste dugu, Mahaiak berriro hori guztia azter dezan. Izan ere, enpresari hasiera batean ez zaio eskatu bideragarritasun-txosteneko zerbait argitzea. Honela dio: "Ez duzu bermatzen azpikontratatu beharreko langileen antzinatasuna". Horrek ez du esan nahi 'Zerbait argitu iezaguzu', 'ez zara egiten ari' baizik. Eta egiten ari ez bazara, kanpoan gera zaitezke. Eta erabaki hori Mahaiak hartu dezake. Zergatik ez du hartu? Horixe ez dugu ulertzen, eta norbaitek hori azaltzea nahi dugu. Eta oraindik inork ez digu azaldu.

Y es más, hay una empresa de las que se ha presentado en otros lotes, aunque, por cuestiones de solvencia, se les ha dejado fuera. Entonces, nos parecen dos elementos suficientes para tener en cuenta, para que la Mesa vuelva a estudiar esto. Porque lo que se le pide en primera instancia a la empresa no es que aclare algo de su informe de viabilidad. Dice: "No estás garantizando la antigüedad de los trabajadores que tienes que subcontratar". Eso no es 'Acláranos algo'. Es 'No lo estás haciendo'. Y si no lo estás haciendo, puedes quedar fuera. Y eso es una decisión que podía tomar la Mesa. ¿Por qué no la ha tomado? Es lo que no acabamos de entender, y necesitamos que alguien nos lo explique. Y todavía nadie nos lo ha explicado.

Lehendakaria: beste zerbait gehiago?

Presidente: ¿Alguna cuestión más?

Puntua bozkatu egin da, eta emaitza ondorengoa izan da:

Se somete a votación este punto y da el siguiente resultado:

| | |
|---|---|
| Alde…………………… | 8 (EAJ/PNV – PSE/EE) |
| Aurka ………… | 1 (EH Bildu) |
| Abstentzioak……… | 3 (PP – GUK Getxo) |

| | |
|---|---|
| A favor………………… | 8 (EAJ/PNV – PSE/EE) |
| En contra ………… | 1 (EH Bildu) |
| Abstenciones ……… | 3 (PP – GUK Getxo) |

Ondorioz, ONARTUTA geratu da Getxo Kirolakeko kirol-ikastaroak garatzeko eta gauzatzeko (1. Lotea, Raketak) Prozedura Irekiaren esleipena, ARASTI BARCA, M.A. SLri egindakoa, urteko 327.237,38 euroren truke (%10eko eta %21eko BEZa barne) eta bi urteko denboraldirako, kontratua sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Queda APROBADA la adjudicación del Procedimiento Abierto, para el desarrollo y ejecución de los cursos deportivos de Getxo Kirolak,en el Lote 1 Raquetas al licitador ARASTI BARCA, M.A., S.L. por un importe máximo anual de 327.237,38 euros (IVA del 10% y 21% incluido) y por un periodo de dos años, a contar desde la fecha de la firma del contrato.

157.- SERVICIOS DE HOSTELERÍA PEÑASCAL, S.L. ENPRESAK SUSPERTU, S.L., ENPRESAREN ALDE AURKEZTUTAKO LAGAPENA BAIMENTZEKO AKORDIO PROPOSAMENA, TXERTATZE ETA TOKIKO GARAPENERAKO PROIEKTUAREN KONTRATUAN, LAN MERKATUAN SARTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTENAK GETXOKO KIROLAK-FADURAKO LOKALETAN, OSTALARITZAN, PRESTAKUNTZAN ETA HAURREN ZONALDEAN SARTZEKO

157.- PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA AUTORIZACIÓN DE LA CESIÓN PRESENTADA POR SERVICIOS DE HOSTELERÍA PEÑASCAL, S.L. EN EL CONTRATO DE PROYECTO DE INSERCIÓN Y DESARROLLO LOCAL PARA EL EMPLEO DE PERSONAS CON DIFICULTADES DE ACCESO AL MERCADO DE TRABAJO EN HOSTELERÍA-FORAMACIÓN Y ZONA DE NIÑOS/AS EN LOS LOCALES DE GETXO KRIOLAK-FADURA

Lehendakaria: dakizuen moduan, honako hau Fadurako kafetegia kudeatzeko kontratua da, eta Susperturi edo Suspergintzari lagatzeko eskaera egin da (ez naiz orain ondo gogoratzen nola deitzen den); asmoa da proiektu berari jarraipena ematea. Peñascalek ez duela jarraitu nahi erabaki du, eta oraintxe bertan zerbitzua ematen ari den enpresaren ezaugarri berak dituen enpresa baten esku utzi du.

Presidente: Bueno, como sabéis, este es el contrato de gestión de la cafetería de Fadura, y ha sido una solicitud de cesión a Suspertu... o Suspergintza... no me acuerdo ahora cómo se llama exactamente... y es para seguir con el mismo proyecto. Peñascal ha decidido que no quiere continuar, y lo ha cedido a lo que entiendo es una empresa de las mismas características que la que lo está prestando ahora mismo.

Galderaren bat?

¿Alguna pregunta?

Paula Amieva: bai. Nik bi galdera ditut.

Paula Amieva: Sí. Yo tengo dos preguntas.

Bat. Badakigu zergatik erabaki duen enpresak lagapena egitea?, dagokion txostena eskatzeko denborarik ez baitugu izan.

Una. ¿Se conoce el motivo —es que no nos ha dado tiempo de pedir el informe correspondiente— por el que ha decidido esta empresa hacer la cesión?

Lehendakaria: ez, ez, ez. Ez dauka arrazoirik eman beharrik. Besterik gabe jakinarazi zigun kontratua Suspergintzari edo Susperturi, Suspergintzari utzi nahi ziola; besterik ez.

Presidente: No, no, no... No tiene que dar ningún motivo. Simplemente nos comunicó que quería ceder el contrato a Suspergintza... o Suspertu... a Suspergintza... y nada más.

Paula Amieva: ederki. Eta beste galdera bat. Egun dauden langileak subrogatu egingo dira? Suspergintzarekin lanean jarraitu ahal izango dute?

Paula Amieva: Vale. Y otra pregunta. Los trabajadores y trabajadoras que están actualmente se van subrogar y van a poder continuar con Suspergintza?

Lehendakaria: proiektu honetan, teorian, langileak ez dira subrogaziokoak: prestakuntzarik gabeko langileak dira. Gehienez hiru urteko prestakuntza-zikloak dituzte, eta horrekin lan-merkatura irteten dira.

Presidente: En este proyecto, en teoría, los trabajadores no son de subrogación; son trabajadores sin formación. Tienen ciclos de formación de, como máximo tres años, y ya salen al mercado laboral.

Paula Amieva: baina prestakuntza hori amaitu ez dutenek jarraituko dute.

Paula Amieva: Pero quellos que no hayan terminado con esa formación, continuarán.

Lehendakaria: prestakuntza bukatu ez dutenei bukatzen jarraitzeko aukera emango zaie. Baina Peñascalek kasu honetan gehienak bere beste prestakuntza-zentro batera eraman ditu.

Presidente: A los que no hayan terminado con la formación se les ofrecerá seguir la formación. Pero Peñascal se ha llevado en este caso a la mayor parte de los suyos a otros centros de formación que tiene.

Paula Amieva: eta pentsatu da gauza bera egin dezakeenik geratzen direnekin hemendik kontratua amaitu bitarte, azaroaren 18ra arte?

Paula Amieva: ¿Y se estima que pueda hacer lo mismo de aquí a que finalice el contrato, el 18 de noviembre, con los que quedan o así?

Lehendakaria: ez dakigu, egia esan.

Presidente: Pues no lo sabemos, la verdad.

Beste galderaren bat?

¿Alguna preguntas más?

Ibon Rodriguez: orain nork kudeatzen du kafetegia?

Ibon Rodríguez: ¿Quién gestiona ahora la cafetería?

Lehendakaria: gaur esan nahi duzu? Kafetegia hilaren 15ean itxi zen inbentarioa egiteko, eta datorren hilaren 5ean irekitzeko asmoa dute.

Presidente: ¿Quieres decir hoy? La cafetería cerró el día 15, para hacer inventario y su intención es abrir el próximo día 5.

Ibon Rodriguez: galdera arrazoi honengatik egin dut: ezin da kontratua geratu eta berri bat egitea proposatu? Ez dakit berria egiterik badagoen. Zeren kontratua lau urterako luzatu zen, duela bi urte, oker ez banago. Peñascalek kontratua baztertzen badu, ez dakit kasu honetan Suspergintzari ematen zaion, edo ez dakit zer gertatzen den Suspergintzak baldintza guztiak betetzen

Ibon Rodríguez: El motivo de la pregunta es el siguiente: ¿no se puede detener el contrato y proponer uno nuevo? No sé si se puede sacar uno nuevo... Porque el contrato se prorrogó durante cuatro años, hace dos años, si no me equivoco. Si rechaza el contrato Peñascal, en este caso, no sé si se le da a Suspergintza, o no sé qué es lo que ocurre si

baditu edo betetzen ez baditu, eta ez dakit zeintzuk diren horren guztiaren atzean dauden arrazoiak.

Suspergintza cumple todas las condiciones, si no las cumple y no sé cuáles son las razones que hay detrás de todo esto.

Gure iritziz, kontratua gizarteratzeko enpresa batekin egin zen, arrazoi zehatz batzuk medio. Eta egia da Suspergintza gizarteratze enpresa bat dela, baina ez dakit zeintzuk diren enpresen arteko loturak, edo hau zergatik gertatu den. Jakin nahi genuke zergatik egin den hori, Legea betetzen den arren. Legeak zerbait ezartzen du, bai, baina legearen atzean helburu batzuk eta gogo batzuk edo borondate batzuk daude. Beraz, premia horiek, helburu horiek eta borondate horiek zeintzuk diren jakin nahi genuke.

En nuestra opinión, este contrato se hizo con una empresa de inclusión, por unas razones concretas. Y sí que es cierto que Suspergintza también es una empresa de inclusión pero no sé cuáles son los vínculos entre las empresas, o por qué ha ocurrido esto. Nos gustaría saber por qué se ha hecho eso, a pesar de que se cumpla la ley. Porque sí, la ley establece algo; pero detrás de la ley hay unos objetivos y unos deseos, o unas voluntades. Por lo tanto, nos gustaría conocer esas necesidades, esos objetivos y esas voluntades.

Bitartean, ez dugu ezer esan nahi. Peñascalekin zer gertatzen den jakin nahi genuke eta zer Suspergintzarekin. Argitzen ez den arte, horren inguruan ez dugu gure iritzirik emango.

Mientras tanto, no nos gustaría pronunciarnos. Nos gustaría saber qué ocurre con Peñascal, y qué ocurre con Suspergintza. Hasta que no lo aclaremos, no nos vamos a pronunciar respecto a este tema.

Lehendakaria: berriro gauza bera diot. Peñascalek ez dio kontratuari uko egin, e? Peñascalek kontratua lagatu du egokitzat jotako enpresa-arrazoiak eta arrazoi komertzialak medio. Ez du kontratua ukatu. Lagapenean eman du. Kontratuaren lagapena egin du. Beraz, kontratua ebazteko, guk kalte-ordaina eman beharko genioke kasu honetan egungo esleipendunari, hots, Peñascali, edota horren lekuan, esleipendun berriari, kasu honetan, ustiatzaile berriari, Suspergintzari. Orduan, ez dago inolako ukapenik.

Presidente: Vuelvo a decir lo mismo. Peñascal no renuncia al contrato, ¿eh? Peñascal cede su contrato, por las razones empresariales, comerciales que considere oportunas, no ha renunciado al contrato. Lo cede. Hace una cesión del contrato. Por lo tanto, para resolver el contrato, nosotros tendríamos que indemnizar, en su caso al actual adjudicatario, que es Peñascal, o, en su caso, al nuevo adjudicatario, en este caso, al nuevo explotador, que es Suspergintza. Entonces, no hay ninguna renuncia.

Ezin dizut ezer gehiago esan, Ibon. Nik ez ditut arrazoiak ezagutzen. Zerbitzua ustiatuko duen norbait egonda, ez zaizkit gehiegi axola ere. Hori bigarren mailako zerbait da. Eta jakingo dugu ahal dugunean, eta jakiten badugu, horren berri emango dizuegu. Baina enpresarena zuzendu eta nik edo mahai honetako edonork izan dezakeen arrazoiaz galdetzeko gai bazarete.

No te puedo decir más, Ibon. Yo no conozco las razones. Teniendo quien explote el servicio, tampoco me importan demasiado. Eso es casi secundario. Y nos enteraremos cuando podamos; y si las sabemos, os las contaremos. Pero tenéis la misma capacidad para dirigiros a la empresa y preguntar el motivo que puedo tener yo o cualquiera de los de esta mesa.

Lehendakaria: horren inguruko beste gairik ez dagoenez, Erabaki-proposamena bozkatu egin da, eta emaitza ondorengoa izan da:

| | |
|---|---|
| Alde.................... | 8 (EAJ/PNV – PSE/EE) |
| Abstentzioa............ | 4 (PP-EH Bildu-GUK Getxo) |

Presidente: Sin ninguna cuestión más al respecto, se somete a votación la Propuesta de Acuerdo, y da el siguiente resultado:

| | |
|---|---|
| A favor.................... | 8 (EAJ/PNV – PSE/EE) |
| Abstención............ | 4 (PP-EH Bildu-GUK Getxo-) |

Beraz, ONARTUTA geratu da Peñascal Ostalaritza Zerbitzua SLk aurkeztutako lagapen-baimena, SUSPERTU SL enpresaren alde, kontratua 2020/11/18an amaitzen den arte.

Por lo tanto, queda APROBADA la autorización de cesión presentada por Servicios de Hostelería Peñascal, S.L. a favor de la empresa SUSPERTU, S.L., hasta la finalización del contrato el 18/11/2020.

Beste gairik gabe, saioari amaiera eman zaio akta honetako goiburuan aipaturiko eguneko 16:42an.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 14:25 horas del día mencionado en el encabezamiento de la presente acta.

Lehendakaria / El Presidente

Behin-behineko gerentea / Gerente accidental